

Internet, jauziaren ordua

EUSKALDUNON EGUNKARIAK hemeroteka zerbitzua eskaintzen du 'on line', webgune osatuaz gain

INTERNET sarea da gizartean eta komunikabideetan gertatu den azken urteetako fenomeno nabarmenenetakoa. Bide berriak urratu ditu komunikazioan eta, ondorioz, komunikabideetan. Eta garrantzitsua —ia funtsezkoa— bihurtu da sarean, amaraunean, egotea. Baina ez egotea bakarrik, baita zerbitzuak eta informazioa eskaintzea ere. Interneten hasierako urteetako erakusleio funtzioa edo aukera gaindituta, eskaintzen den mamiaren garrantziaren kontzientzia zabalitzen ari da.

EGUNKARIA ere jabetu da Interneten potentzialtasunaz eta pixkanaka-pixkanaka bere web-

gunea edukiz janzten ari da. Urrun geratzen da dagoeneko kazeta honen irakurle batek, bere kabuz, EGUNKARIAren orrialde ez ofiziala antolatu zuen garaia. Musu truk egingdako lan eskerga haren ondotik etorri zen EGUNKARIAren webgune ofiziala.

■ Artxiboa, eskura

EGUNKARIAK Interneten eskaintzen duen tresna edo zerbitzu garrantzitsuenetakoa sareko Hemeroteka da. Bertan 1999ko ale guztiak eta 2000ko gehienak daude eskura (gehigarriak izan ezik), Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren On Line egi-

tasmoari esker. Aurrerantzeko asmoa da Hemeroteka egunero berritzea eta egunean bertan bezperako EGUNKARIAko edukia kontsultatzeko moduan jarzea.

Zerbitzua abian jarri zenetik lau hilabete igaro dira eta oso harrera ona izan du internet-zale eta euskaltzaileen aldetik, bere erabilgarritasuna azpimarratuz, bai informazio jakin bat lortzeko, baita euskara eredu kontsultatzeko ere. Hezkuntzan erabiltzeko egokitasuna ere azaldu dute zenbait profesionalak, testuliburu

osagarri moduan. Bilaketak egiteko sistema oso erraza da, eta hainbat bidetatik egin daiteke: eguna, saila, nahi dugun hitza tituluan nahiz testu barruan, orria... Horrez gain, galde dezakegu interesatzen zaigun hitza beste hitz jakin batekin batera agertzen den testuez, eta kontrakoa ere bai: halako hitza ager dadila baina bestea ez.

Egunkaria.com

2000ko uztailaren 25a

- Egunkaria
 - Politika
 - Gizartea
 - Ekonomia
 - Europa
 - Mundua
 - Kirioa
 - Kultura
- Agenda
 - Estreinaldiak
 - Filmak
 - Arteak
 - Kritika
- Zerbitzuak
 - Eguraldia
 - Farmaziak
 - Burtsa
- Iritziak
- Umorea
- Internet
- Gunea

Bonba-autoa Pilar Aresti PPko senadorearen etxe aurrean

Leherketaren aurretik, ET Aren irratia hiru dei egia zituzten ekitaldiak ospatzen ziren.

BONBA-AUTOA: 20:20an lehenetako, Gureko Herriko Jose Amann kalean, Pilar Aresti PPko senadorearen etxe aurrean. Leherketa lehen lehenetako zela eta zela zela leherketa, eta PPko senadorearen etxez gain, lagurko erakunde ere kalte egon eta hasi da leherketa. Lan zantzu ari izan ziren leherketa egileak eta herriko kideak jota. Estanda baino ordu luzeago lehenago, ET Aren irratian Gure eguraldian, Gureko Udalak eta DYARa berriz, eta "Gurekurea" komando ekitaldiak zela esan. Duela hilabete, ekitaldian 25an, beste bonba-auto bat leheritu zen auzo berran.



www.egunkaria.com da EGUNKARIAren webgunearen helbidea.

Hemeroteka
Leherketa lehenetako hitzak
Berrien bilatzailea

Artiboi



BOISEKO
EVSKAL

Jaso

Hemerotekan
1999ko ale guztiak
eta 2000ko gehienak
kontsultatu
daitezke

■ Egunerokoa

EGUNKARIAren webgunean sartuz gero (www.egunkaria.com), sail bakoitzean egunero argitaratutako albiste garrantzitsuenen berri izan daiteke, argazki eta guzti, munduko edozein txokotan. Euskal Herrikan kanpo dauden euskal herritarrek sarritan eskertu dute zerbitzua.

Baina albiste ez gain, bestelako hainbat zerbitzu ere eskaintzen dira: iritziak, umorea, agenda, hiriburuetako karteldegia (zerrenda, estreinaldiak eta kritikak), eguraldia, farmaziak, burtsa, EGUNKARIAren Interneti buruz emandako informazioa eta

kultura alorreko eta erakundearen webguneen helbideak.

Gure Gaiak izeneko atal bat badago eta bertan euskarari eta Euskal Herriko prozesu politikoari buruzko agiriak aurki daitezke.

Igandeetako haurren Xingola gehigarriak ere txoko propioa du eta asteroko atal gehienak biltzen dira. Ostiraletako Mundu Mira mendi eta abentura gehigarrian kaleratutako mendi ibilbideak ere sarean daude, mapa eta guzti.

EGUNKARIAK paperean jauzi handia eman du urte gutxiren buruan; Interneten eman duen jauzia, baina, ez da txikiagoa. Eta ez da lehen urratsa baino.

Webgunean,
eguneko albisteez
gain, beste hainbat
zerbitzu eskaintzen
dira

Hemeroteka Egunkaria.com

Bilaketa testuan:

Data: edozein

Saila: edozein

☐ Kronologikoki ordenatua

Bilatu

☐ Bilaketa zabaldua

☐ Lehenetako

Interesa duzun gainera bilaketa egiteko, aldez aurretik testua eduki duzun "bilaketa testuan" argitaratzen. Egunkaria.com bilaketa zabaldua duzun gainera eduki duzun "bilaketa testuan" eta datu gehiago zehaztu.

Plazagunea
Internet Zerbitzuak

Xingola
Egunkaria

Hemeroteka zerbitzua erabilterreza eta oso praktikoa da.

erakusketa

uztailak 19-azaroak 5
2000

san telmo museoa

donostia

atarian la ciudad de tu vida



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Fundación "la Caixa"



Donostia Gas



Donostia Water



Donostia Municipality



Donostia Municipality



Donostia Municipality

fcc MEDIO AMBIENTE S.A.